

Goibek kale

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Elgetako aldizkaria apirila 45zk.

TA SALUDA CORDIALMENTE

**5.000 mendizale espero
dira Euskal Mendizale
Elkartearen 75.
urteurrena ospatzeko**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxes: 94 6583061.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Goibekokaleko atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan irakurleok dituzuen kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derri gorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inzialak edo gaitzizena agertuko dira. Eskutitzen luzerari dagokionez ez da komeni 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Eskutitza guregana heltzeko aukera ezberdinak dituzue: Goibekokale ipinita sobrea bidaltuta, udaletxe azpiko buzoira botata eta e-mail bidez, gure e-maila goibeko@topagunea.jalgi.com da.

Maiatzak 9

Herririk Urrats

Euskara urratsez aitzina!

Autobusa gaztetxetik
Irteera 8:30etan
Izena eman Haizea eta
Gaztetxean

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/296

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Europar batasuna: Nondik dator eta norantz doa?

Europar Batasunaren haziak 1951n jarri ziren "Ikatz eta Altzairuaren

Europar Batasuna" sortzean.

Hasieran soilik interes ekonomikoak zituzten bere 6 kideek, baina pixkanaka beste estatu batzuk gehitu ziren, Espainia bera 1985ean sartu zelarik. Bere instituzioak indartzen joan dira eta bere lege erabakiak orain kide diren 15 estatuen bizitzako gune gero eta gehigotara iristen dira. Hilabete gutxi barru guztioi burukomin batzuk ekarri behar dizkigun "Euro"-aren bidez "moneta batasuna" egi bihurtuko da eta "Herrialdeen Europan", Euskal Herriak bere burujabetzatik lan egiteko aukera paregabea du.

Baina konturatzen al gara Europar Batasuna Estatu Batuen "inperioaren" aurrean eraikitzen den aberats gune bat besterik ez dela? Garatze bidean dauden herrialdeetako pertsonentzat gero eta zailagoa da hemen lan edota bizitzeko baimena eskuratzea eta honekin, ilegalki dauden etorkinen kopurua handitu besterik ez da egiten.

Zer eskubide dugu guk beraien bizi maila hobetu besterik nahi ez dutenei ateak isteko? Euskal Herri bertatik ez ziren ehundaka joan goseak jota Amerika edota Australiara?

Etorkinen "arazoarentzako" irtenbidea txiroei laguntzea izango litzateke, baina aldi berean onartu beharra dago gure gizartearen tolerantzia eta heziketa maila etorkinak onartzeko nahiko eztabaidagarria dela.

Datu eta galdera guzti hauek airean utzita, argi dudak bakarra zerada: gaur ere, tamalez, Europak bere bihotz-bihotzean odola darion guda zauri bat duela eta benetako Europar Batasuna lortuko den eguna iritsi aurretik beste udaberri asko pasa beharko direla.

Nuria Arregi Guridi



Esatea erraza duk!

Askotan esaten zuen gurean aitak. "Esatia erraza dok! Hemen, egittia kostatzen dok!"


Halaxe da. Bizitzaren arlo askotan ikusten dugu hori: Lan eta lan ari denari, edo proiekturen bat atera nahian ekinean diharduenari, kanpotik etorritako bat hau eta bestea esaten hasten zaionean... bibolina jo besterik ez dio egiten! Halaxe jardun nintzaien neu ere orain asko ez dela lagunei, Elgetako eskola zela eta ez zela. Etxera joan nintzenean ohartu nintzen, harrokeria azaldu nahi gabe ere, burua berotu besterik ez niela egin, kanpotik etorri eta burua berotu besterik ez!, ezer konpondu ez! Eta ez da bidezkoa, aitortu beharra daukat. Eta ni neu ez nintzen aproposena, baina orduan ere zera adierazi nahi nuen: gauzak egin egin behar direla. Jardun eta jardun aritzea alferrik dela.

Politika munduko gertakarien inguruan ere berdintsu... Ez zuen garai berri hau ezagutu gure aitak! Hainbat etxetan pasatako kalamidadeak ahaztu gabe, ziur nago, herriagatik bizia eman zutenak ere pozik daudela (dauden tokian...), gaurko aurrerapausua ikusita! Oztopo eta traba gehiago ezin dute asmatu etsaiek, eta hala ere, oraintxe goaz inoiz baino sendoago aurrerantz!

Ezin ditut ahaztu bidean gelditu direnak, ez kartzelan daudenak, nahiz erbestera... Haiantzat da astunena orain ere zama. Baina kosta ahala kosta aurrera egin behar dugu. Ezin gara begirunerik zor ez digutenei begira gelditu. Haiei jaramonik egin gabe ekin egin behar diogu: geure helburua etorkizunean jarri eta, denon artean, euskaldunok nahi dugun Euskal Herria eraiki!

"Esatia erraza don, baiña egitten ari gaittun!"

Beatriz Zabalondo



GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarrrieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel.: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com **Tel.:** 943.78.90.85

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Adimen urritasuna dutenen aldeko kanpaina martxan jarri du Atzegik

Atzegi adimen urritasunarekin erlazio zuzena duten 1.895 familien informazio eta orientazio eskakizunak erantzuten dituen elkartea da. 1.960an familia multzo batek sortu zuen Atzegi, harrezkero hainbat zerbitzu bultzatu eta sortu ditu. Adimen urriko pertsonentzat zuzeneko zerbitzuak eskeintzen ditu etxebizitzatan, aisialdi eta gizarte partaidetzan, ikastetxetan, tailer babestuetan, egoitzatan... Familiei ere zuzeneko zerbitzuak eskeintzen dizkie: gizarte laguntza, eskualdeko lana, guraso berrientzako familia arteko laguntza eta etorkizun-

nerako aholkularitza besteak beste.

Aurten kanpainaren lema "Ez dakizu zer sentitzen dudan, lastima! Sentitzen dut" da. Kanpainarekin pertsona hauek eguneroko bizitzan gizarteratzea lortu nahi da. Adimen urritasuna duten pertsonen sentimenduak, afektuak, haserreak eta eskakizunak beste guztionak bezalakoak direla ulartarazi nahi zaio gizarteari.

Elgetan 6 familia dira Atzegiko bazkide. Elgetak eta Angiozarrek badute Atzegiko delegatua, Garbiñe Sarasketa eta Rosa Elizpuru dira. Urteroko kanpaina aurrera



Garbiñe Sarasketa da Elgetan Atzegiko delegatua.

eramateko lanetan dihardute orain. Informazio gehiago nahi izanez gero Garbiñerengana jo dazakezue edo bestela Atzegira zuzenean 943.42.39.42

telefonora deituta. Urte betean Atzegiko bazkide izateko 2.500 pta. ordaindu behar dira eta bazkide egiteko aipatutako telefonora dei dezakezue.

Jaietako egitaraua egiten hasi dira bi hilabeteren faltan

4. 434.000 pta.ko aurrekontua du aurtenago Azoka Nagusiak

Jaien Batzordea hasi da uztailak 1,2,3 eta 4an ospatuko den Azoka Nagusiko jai antolatzen.

Aurtengo jaietan plazara etorriko diren musika taldeak Amaia eta Kristina, Kiñu, La parranda Mejikana eta Jainaga eta Narbaiza izango dira.

Gaztetxean ere izango dira kontzertuak hala ere oraindik ez daude zehaztuta.

Programari dago-kionez, berritasun nagusia bariku arratsaldean izango da seguruenik. Trapuzaharra kale animazio taldea "Laberia" obra antzeztera

ekartzeko ahaleginak egiten ari baita batzordea.

Bestela, programan urteroko ekintzak ageri dira: haurrendako jolasak, parkea, bizkleta lasterketa, play backa, zezenak, Incansables eta Ori txarangak, herri kirolak, dantzak, buztin erakusketa,

nagusiendako play backa... ez dira faltako aurtenago Azoka Nagusietako jaietan.

Pregoa nork emango duen da jai batzordeak daukan buruauste nagusia.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Maiatzak 16an Asentzio Eguna

Aurten maiatza ospakizunez beteta dago. Azkenengo urteetan bezala aurten ere herriko gazteek berreskuratu zuten jaia ospatuko da Asentziora. Ingurutatik etorritako jende ugari bilduko dela uste dute antolatzaileek.

Egitaraua oraindik zehaztu gabe egon arren urtero bezala erromeria, meza, dantzariak, bazkaria eta arrantza txapelketa egongo dira. Sorpresatxoren bat ere egon daiteke herri kirolekin lotua. Egun honetan Asentziora egiten den bazkarira joateko Haizea eta Patxi taberbertan daude txartelak salgai 1.500 pta.tan.



Gero eta jende gehiago biltzen da Asentziora.



Haurrek iaz egindako dantza saioa.

Mediku praktikantearendako txanda hartzea

Betiko sistemaz gain, mediku eta praktikantearentzako txanda hartzeko 942.76.24.40 telefonora deitu daiteke. Telefono honetara deitzeko ordutegi egokiena eguerdiko 14:00etatik arratsaldeko 17:00etara izango da.

Hauteskunde errolda ikusgai

Apirilaren 26tik maiatzaren 3ra arte ikusgai dago Udaletxean hauteskunde errolda. Zerrendatan zure burua behar ez bezala aurkeztua edo kendua ikusten baduzu erreklama zenezake Udaletxean.

Barran egoteko jendea behar da

Maiatzak 23an Euskal Mendi Federazioaren urteurrena dela eta antolatzaileek barra jarriko dute plazan. Goizetik eguerdiko 14:00ak arteko turnoak Gaztetxeak hartu du eta arratsaldekoa Intxorta eta Ozkarbi elkarteek. Hau horrela, barran lan egiteko jendeari dei egiten zaio Haizea eta Patxi tabernatan eta Gaztetxean egongo diren zerrendatan apuntatzeko.

Elgeta mendizaleez beteko da hilaren 23an

Maiatzak 23an, Euskal Mendi Federazioaren 75. urteurrena dela eta, ekin-tza ugari antolatu dira hile guztian zehar.

Maiatzak 17an astelehena, arratsaldeko zazpiretan diaporama emanaldia izango da Patagoniari buruz. Andoni Arizaga eta Josetxo Rodriguezek eginitako emanaldia Torres del Painen barruan zabalduko Antton Gaizka bidearen ingurukoa da.

Maiatzak 21ean,

arratsaldeko zazpitan, Ricardo Arregi mediku famatuak diapositiba emanaldia eta hitzaldia emango ditu, gaia "Prevención y tratamiento de congelaciones". Mundu mailako medikurik jakintsuenetakoa da berau gai hauen inguruan. Hitzaldi bi hauek izango diren lekua oraindik zehaztu gabe dago.

Maiatzak 22an eguerdiko 13:00etatik aurrera frontoiaren alboan dagoen rokodromoa zaba-

lik izango da bertaritzen denarentzat. Euskal Herriko putako eskalataileek beren trukoak erakutsiko dituzte. Gauean, 10:30etan Oskorri & Pub Ibiltariarekin gozatzeko aukera izango da herriko frontoian.

Maiatzak 23an ospatuko da Anaiarteko eguna. Goizeko 11:30etan meza eta zutabeen bilkura izango da Asentziora. 13:00etan ekitaldi ofiziala izango da. Bertan, Lizaso, Egaña eta Ainhoa Agirrea-

zaldegi bertsolariak, Elgoibarko Haritz eta Elgetako dantzariak, Ozkarbi abesbatza, alkate eta federazioen agurra eta plakaren irekiera izango dira. Ondoren bazkaria izango da frontoian 650 pertsonentzat. Bazkari honetarako txartel guztiak salduta daude dagoeneko. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera Maixa eta Ixiar arituko dira plazan. Esan behar da ETBk programa bat egingo duela Elgetatik, zuzenean balitza moduan.

30 urte dira prozesiorik egiten ez zela Elgetan

Hiru pausuk osatutako prozesio izan zen Bariku Santuan

Nahiz eta gaia piskat hurrun geratzen zaigun, interesgarria deritzogu orain dela 30 urte egin gabe zegoen prozesioaren gaineko berri ematea. Horregatik, Jose Luis abadearekin egon gara gaiaren inguruan galdera batzuk egiteko.

Aste Santuan, Parrokiak antolatuta, Bariku Santuko prozesioa egin zuten herriko fededunek. Jende ugari hartu zuen parte ohitura hau berreskuratzeko lanetan. Figurak eta gurutzeta eramaten 15 lagun inguru ibili ziren, eta hauekin batera fededun ugari ibili zen herriko kaleetan zehar.



Elizaren atzeko atetik atera eta San Roke kalea, Artekale eta plaza barrenetik gora egin zuten.

Gutxi gora-behera orain dela 30 urte ez zen Bariku Santuko pro-

zesioa egiten. Lehen, bi egiten ziren: Lehenengo, Eguen Santuan eta bigarrrena, Bariku Santuan.

Herriko kaleetan zehar ibili zen hiru pausuk osatzen zuten prozesioa. Kalera-tu zituzten figurak gurutzeta, San Juan, Jesus Nazaretarra eta Nahigabetako Ama

Birgina izan ziren. Aurten ezin izan dute elizan dagoen hilobia atera, pisu asko duenez jende asko behar baita.

Abadearen hitzetan "Prozesioaren helburua lehengo espresioak berreskuratzea zen, herri erlijioan oinarritutakoak, horrelako gauzak folklorismo hutsean gera ez daitezzen. Honek, garai bateko nostalgia eta sentimentuak berreskuratzen laguntzen du eta galdutzat ematen diren tradizioak berreskuratzeak jende asko ikutzera heltzen da" Aperribai abadearen esanetan.

Hurrengo urterarako prozesioa hau egiten jarraitzeko asmoa daukate. Jendea topatuz gero elizan dagoen hilobia ere aterako dute. "Aurtengo esperientzia oso eraginkorra eta positiboa" izan dela aipatu digu abadeak.



Aintzinako erara, beltzez eta alpargatekin egin zuten bidea prozesioan parte hartu zutenek.



Kantuan egin zuten bidea Ozkarbi abesbatzak lagunduta. Gehienak edadetuak prozesioan.

INAKI JATETXEA

Leku paregabeari,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

Astelehenetik ostiralera
zabalik goizeko 9:00etatik

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Angiozarko Bira, maiatzak zortzian

Aurten maiatzaren zortzian izango da "Angiozarko Bira" txirringulari irteera azken urteetako ohitura baztertuz. Orain arte maiatzak batean korritzen zen Soziedadeko jaiarekin batera, baina dena batera izateak oztopoak sortzen zituela eta aurten San Migel Monte egunez izango da.

Aurtengo ibilbidea honako hau izango da goizeko 8,30etan irtenda: Angiozar, Bergara, Eskoriatza, Arlaban, Legutiano, Otxandixo, Urkiola

(hamaiketakoa), Durango, Areitio, Eibar, Bergara, Angiozar. Hiru mendaterekin eta 110 kilometroko ibilbidearekin guztien gogoak betetzeko irteera izango dela ez dago dudarik.

Behin heldu eta txukundu ostean, arratsaldeko 3etan, ORTZI jatetxean elkartuko dira txirringulariok bazkari pasaran, egunari eta azken urteetako irteerei aztertuta bat emateko. Datoren urtekoa ere bertan prestatuko dute seguruenik!

Frontoiaren izena erabakita

Azkenik erabakita gelditu da Angiozarko frontoiak izango duen izena bere berrizte lanak bukatu ondoren. Aurreko Goibekokalen adierazi genizuen proposapenak egiteko epea irekita zegoela, edonork adierazi zezan horri buruz zeukan eritzia. Bitarte honetan inork izen berririk ez duelarik eman, Angiozar Bailarako Batzarrak bere apirileko bile-

ran Harbiaska izena onartu zuen ofizialtzat, horrela ager dadin bertan egingo diren ekintzen adierazpen guztietan.

"Harbiaska" frontoia dagoen lekuaren izena da eta jendeak normal erabiltzen duena lekuari buruz berba egierakoan, beraz egokiagorik ezean berau izan da aukeratua.

Pagomendi Soziedadearen eguna

Maiatzaren batean ospatuko da Pagomendi Soziedadearen elkartasun eguna. Eguerdian meza ospatuko da hildako sozioen alde, ondoren kalejirak soinu-joleekin eta ordu biak eta erdietan bazkaria. Arratsaldean, urtero bezala "il ruissegnore di Egiño" ren kantuak entzuteko aukera ez galdu, errepertorio ederra eskeiniko digu aurten ere, seguru.

Goimendiko Jaiak

"San Migel Monte" jaiak ospatuko dira Goimendin datorren maiatzaren zortzian, zapatua. Arratsaldeko zazpirak inguruan meza izango da San Migel ermitan eta ondoren elizaurrean luntxa.

Bederatzietan Kanpazar Jatetxean afaria eta ondoren eguna zabaldu arteko erromeria.

Aurten, gainera jaiok aprobetxatu nahi dira San Migel ermita berrizteko planak jendeari azaltzeko eta guztien parte hartzea bultzatzeko. Lehendik inguruetako elizarik txukunena izanik orain benetan ikusgarria geldituko dela ez dago dudarik.


Jon eta Nekane ezkondu dira

Jon Loiti eta Nekane Exposito ezkondu ziren joan den zapatuan, apirilak 24, Bergarako Udaletxean. Bergarako alkateak ezkondu zituen eta ondoren Jonen hilobak aurrezkuarekin agurtu zituen atarian. Lopen ezarriko duten euren bizilekua bikote berriak. Zorionak biei eta etxekoei!.


Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043



Zer eskatu-ko zontzake hurrengo alkatiai?



Juan Andres Aretxaga
Bihargiña (51 urte)

Pentsatzen jata biharrezkua dala bariantia egittia, herri-xan erdittik kotxiak sekula-ko abaillia eruaten dabe eta.

Nik eskatuko notzake oiñ arte moduan jarraitzia, lan asko egin dabela eta bardi-nian segitzeko.

Begoña Ardantza
Etxekoandria (54 urte)



Itziar Elorriaga
Etxekoandria (62 urte)

Oin momentuan gure arazua karruandako pasuak ez egotia da. Etxetik Artekalera euzkittara urtetzeko be eskillara bi pasau bihar dira eta ...



Itziar Gorostitza
Bihargiña (39 urte)

Nik eskatuko notzake gauza barrixak egitten jarraitzia, ez egotia ezer egitteka. Falta diran gauzak ifintzia ...

Eskatu, gauza asko eskatuko notzakez, baiña zelan ez dittuan guk eskatutakuak egingo, berak nahi dittuanak egin dittu beti, eta ez dot uste aldatuko danik.

Arantxa Askasibar
Etxekoandria (38 urte)



Alain Elorriaga
Bihargiña (18 urte)



Gustauko jatan behingoz polikiroldegixa amaitzeko falta diran fasiak egittia eta baita Udaletxian aldetik ekintza gehixau antolatzia be.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETARIA ETA
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

E
HARATEGIA
A
S
T

San Roke o
tel: 768168.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salvador 26. Tel: 768190

ARIES: Hire gelia txukundu ezkeru, gurasuak poztuko dittuk/dittun. Hola zeuen artekua mejorauko dok/don.

TAURUS: Maittasun kontuetan arazuekin? Lasai hire bihotzeko azukar kokkorra agertziar jaok/jaon.

GEMINI: Aste santua hire bikotiakin pasatziak on egin dua/dona. Baiña argi! Hurrengo deskuiduan pikutara hoia.

CANCER: Marte hire zeñuan sartu dok/don eta horrek lagunduko dua/dona egin bihar dittuan/dittunan gauzak aurrera eruaten.

LEO: Deskantsuak on egin dua/dona eta oin behintzat hirekin berba egittia errezaua dok/don. Badakik/badakin lehen beti txakurra moduan.

VIRGO: Aste Santuko mendi urteerriak lasaittu hau/dona, hemendik aurrerako egunak zoragarriak izango dittuk/dittun.

LIBRA: Osasunai ez dotzak/dotzan kasu haundirik egiñ aspalditxuan. Kontuz ibilli hadi berandu izan baiño lehen.

SCORPIUS: Aman gonapetik urtetzeko ordua badok/badon, gatxa dok/don betiko martxia aldatzia, baiña, animo!

SAGITARIO: Egualdixa moduan habil, oiñ ondo gero txarto. Dana dala, sasoi hobiak etorriko dittuk/dittun.

CAPRICORNIO: Astuna haiz gero! Gauzak hainbeste bidar ez dittuk/dittun esaten, behin ganoraz esanda nahikua dok/don.


AQUARIUS: Danak hiri begira jaozak/jaozan. Egiñ kaso egiñ biharrekuai eta listo.

PISCIS: Gauza danek jakek/jaken bueltia onak edo txarrak izan. Hi behintzat kanbixuan zaiñ egon hadi.

Tomas Beteta Bihargiña (59 urte)

- Zertan diharduzu? Tallarrian lanian.
- Zenbat urtian Elgetan bizitzen? 39 urtian.
- Zeren faltia igartzen dozu Elgetan hegoaldeko herri-xekin konparau ezkeru? Hasieran ez zan bardina, baiña oiñ aklimatau egin naiz.
- Etxeko lanak egitten dozuz? Batzutan.
- Zer da esan bai, baiña egiñ ez dozun hori gauzizoi? Lotua tokatzia.
- Gustokuen dozun jatekua? Edozer jaten dot.
- Zenbatian behin moztan dozu ulia? Bi hillian behin.
- Gustauko jatzun baserri-tarra izatia? Ez.
- Zure euskeriak eboluzionau dau etorri ziñanetik hona? Zehozer bai.
- Lagunekin egitten dozun gauzaik gustokuena? Juergia.
- Txikiteorako orduik onena? Lanetik urtetzen gazeneko ordua.
- Zenbat telebista dakazuz etxian? Bi, bat neretako eta bestia "txatuandako".
- Erretzen dozu? Bai, baiña oin gutxiau.
- Zer falta jako Euskal Herrixai bizitzeko leku perfektua izateko? Ezebez.
- Kantari gustokuena? Flamenkua orokorrian.
- Zelan ikusten dozu zure burua euruan aurrian? Oin baiño pobriau.

- Ze kirol egiten dozu? Perretxikutara fatia, mendixan ibilli...
- Egunian zihar zenbat bidar garbitzen dozuz agiñak? Jatordu bakotxa eta gero.
- Sekula egin dozu erregimenik? Bai, estomaguak bihartuta.
- Egunkarixa, irratixa ala telebista nahixau? Telebista.
- Noiz bota ziñuan azkenengo juergia Elgetan? Gabonetan.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behetkoa Baserria. Tel: 860156

Mendizale guztien festa

Maiatzaren 23an Euskal Mendizale Federakundearen 75. urteurrena ospatuko da Elgetan

Duela 75 urte gertatu zen bezalatsu, datorren hilaren 23an Elgeta izango da Euskal Herriko mendizale guztien topagunea. Egun esanguratsu horretarako hainbat ekitaldi prestatu dira, baina seguraski, Aralarren bedeinkatu ondoren eta 75 tontor igo ondoren, hainbat lurraldeetako federazioek bere elkarten esku jarri dituzten makilak herrira iritsiko diren unea izango da ekitaldi guztien gailurra. Hau ez da izango ordea, egingo den ekitaldi bakarra. Maiatzaren 23an eta baita aurretik ere hainbat ekitaldi izango dira.



Datorren maiatzaren 23an 5.000 mendizale inguru espero dira.

Elgetako Mendizaleen Plaza leku garrantzitsua da Euskal Herriko mendizale askorentzat. Euskal Herriko herri garaienetakoa izan arren, duen kokaera geografikoak

eragin du leku aproposa izatea, izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoko erdialdean aurkitzen baita.

Maiatzaren 18a egun historikoa


1924. eko maiatzaren 18a egun garrantzitsua da Euskal Herriko mendizale guztientzat, hain zuzen ere, egun horretan egin baitzen gaur egun "Euskal Mendizale Federakundea" bezala ezagutzen dugunaren lehen batzarra.

Elkarte ezberdinetako ordezkariak eginitako Batzar hartan, lehenengo arautegia onartzeaz gain "Federación Vas-

co Navarra de Alpinismo" sortu zen, Antxon Bandres presidente zuela. Antxon Bandres bera izan zen Udaletxeko balkoira irten eta Euskal Herriko izkin guztietatik etorritako milaka mendizaleen aurrean Federakundearen sorreraren berri eman zuena. Hurrengo urteetan ere Elgetan elkartu ziren eta 25. urteurrena eta 50. ere bertan ospatu ziren. Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik 75. urteurrena Elgetan ospatzea erabaki da. Euskal Federakundeko Idazkariak, Jose Ignacio Sarasua Garatek, egun berezi hau Elgetan ospatzearen arrazoiak azaltzen dizkigu, "Euskal Mendizale Federakundearentzako oso garrantzitsua da egun esanguratsu hau Elgetan ospatzea, besteak beste, Federazioa Elgetan sortu zelako eta sortu ondorengo lehen urteetan, urterik zailenetan, bilerak Elge-



Federación Vasco Navarra de Alpinismo" sortu zen, Antxon Bandres presidente zuela.



Tel: 76 81 67

**Iragarri
zaitez.**

Tel: 78.90.85
Faxa: 789043

VIVO
Janari
denda

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salvador zeharbidea 2
ELGETA

tan egin zirelako. Horrez gain, 25. urteurrena eta 50.ena ere bertan ospatu ziren, eta beraz, Elgeta zela herri aproposena pentsatu genuen. Gainera, Elgeta da, Euskal Herri osoan, Mendizaleen Plaza duen bakarra".

1924.eko maiatzaren 18a Federakundearen jaiotze eguna izan bazen, bi urte beranduego, 1926ko maiatzaren 26an Euskal mendizaleen eta udalaren arteko akordioa sinatu zen. Akordio hau, herriko plazari "Plaza del Alpinismo" izena ipiniz baieztatu zen, berriz ere, milaka mendizalderen aurrean. Orain Mendizaleen Plaza bezala ezagutzen dugu, 1978.eko abuztuaren 1etik transizio garaia dela eta, kultura, hizkuntza eta ohituraren berreskuratze lanen ondorioz izen hau eman zitzaion eta.

Mendiz mendi Elgetara

Maiatzaren 23a egun handia izatea espero da, eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu dira. Ikusgai izango ditugu, besteak beste, Maixa ta Ixiar, Elgetako dantzari eta trikitilariak, Elgoibarko dantzari eta txistulariak... eta horrez gain, aurreko asteetan, beste hainbat ekintza izango dira. Baina dudarik gabe esangura-



Maiatzaren 23a egun handia izatea espero da, eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu dira.



1926.eko maiatzaren 26an Elgetako plazak "Mendizaleen Plaza" izena hartu zuen.

tsuena bost zutabeen iritsiera izango da. Gipuzkoako, Nafarroako, Arabako, Bizkaiako eta Iparraldeko Federazioak osatzen duten elkarte guztiek, txandaka, Euskal

Iruñeako "Club Deportivo Navarrak" egindako proposamena izan zen. Korrika eredutzat hartuz, herrialde bakoitzak makila bat hartu, bost guztira, eta abenduaren 20an Ara-

Gaur egun mendizaleetasuna egoera onean aurkitzen da Federakundeko Idazkariaren hitzetan: "Punta puntako mendizaleak ditugu. Federazioaren lana gazteei laguntzea da gehienbat. Egoera onaren seinale, federatu kontuan ikusi daiteke. Estatu mailan federatu gehien dugun federazioa gara". Federakundeak, bere partaideen eskakizunari erantzunez, karnet propioa sortu du, "Joan zen urtean Euskal lizentziak ateratzen hasi ginen, estatukoarekin zerikusirik ez dutenak. Lizentzia honekin Euskal Herriko mendietan bakarrik ibili daiteke eta kanpora joanez gero ez du baliorik. Guk apostu hori egin genuen, mendizaleak eskatuta, eta konbenioak egiteko saiakerak eginen ari gara, nahiz eta estatuko federazioak oztopo ugari jartzen dituen beraiei ez zaielako horrelakorik komeni. Gu gara beraien diru iturri nagusia", erantzun du Jose Ignaciok.

1924. eko maiatzaren 18an egin zen, "Euskal Mendizale Federakundea" bezala ezagutzen dugunaren lehen batzarra.

Herriko mendi guztiak zeharkatuko dituzte Elgetara iritsi arte. Jose Ignacio Saratsuak ideia nola sortu zen adierazi digu,

larren bedeinkatu ondoren igandero mendi guztiak igo eta Elgetara ekarriko dituzte. Makila hauek Udaletxean geldituko dira".

Gaur egungo egoera

Egun esanguratsu honetan 5.000 mendizale inguru etorriko direla espero da, horien artean estatuko beste federazioetako ordezkariak eta Euskal Herriko mendizaleen artean historia egin dutenak ere, hala nola, Lorente...

Drogei ez

Kaixo, gu DBH-3ko ikasleak gara. Ez genekien ze gaiekin zuzendu zuengana eta gaur egunean oso entzuna den gai honen ikuspegia azaltzea erabaki dugu.

Gaurko honetan ez dugu droga motei buruz idatziko, lehen esan dugun bezala gure inguruan drogak sortzen duten arazoa nola ikusten dugun azaltzen saiatuko gara.

Gazteek ezetz esango badute ere, drogetan sartzeko "biderik" errazena edan edota erretzen hastea da (gure ustez). Egia da gazte asko ez direla edan etado erretzetik pasatzen, baina...

Onartu beharra daukagu beste asko bertatik hasten direla. Guk ikusten dugunez gure inguruko gazte askok ez daukate nahiko erre edota edatearekin. Droga fuertea-goetara pasatzen dira. Nor-

malean zigarroetatik porroetara heltzen da jendea. Hasierran jai egunetan bakarrik erretzen dute, ondoren arrotasunagatik edo buruak eskatzen dielako asteko egun gehienetan erretzen hasten dira. Hau gutxi iruditzen zaienean droga fuertea-goetara jotzen dute, batez ere : speed, kokaina (bere deribatuetak) eta tripiak. Jende-

dira gauza hauek "frogatzen".

Guraso askok uste dute beraien seme-alaba gauza hauetan ez sartzeko onena errieta egin eta zigortzea dela, baina guk, gure ikuspegitik esan dezakegu horrela okerrago dela. Gurasoak hitz egiten badute garraxi gabe, seme-alabei gauzak ulertaraziz hobeto da, honek ez du esan nahi ez direla mundu horretan sartuko, baina hori beraiak bakarrik galeraz dezakete. Guztiarekin amaitu baino lehen eta inorekin sartu gabe esan nahiko genuke, etxeko arazoei ihes egiteko bidea aurkitzen dutela bertan gazte ugari.

Gainetik begiratuta hau da gure iritzia arazo honi buruz.




ak uste ez duen arren gero eta pertsona gazteago/umeagoak hasten

DBH 3ko ikasleak


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Matematiko ezaguna gure eskolan

Martxoak batean, gure ikastetxera munduko kalkulatarik bizkorrena etorri zen. Jaime Garcia Serrano ezagutzeko aukera izan genuen.

zituen bakoitzean heuren bokadiloak ematen zioten. Azkenik matematikak gus-tatzen hasi zitzaizkion eta urte askoren ondoren bost errekor egin zituen Guinness liburuan sartzeko moduko-ak. Bost errekorrok liburu horretan daude bada.

Jaime, Malagan

$$x^2 + y^2 < 2^2$$

ondoren denak esan zituen eta ondoren denak alderarantziz esan zituen. Beste gauza batzuk ere egin zitzaizkion, adibidez, sei zenbaki baino gehiago zituen zifra batzuen erro karratuak asmatzen zitzaizkion guk kalkulagailuarekin egin baino lehen. Hau egin ostean, hogeit hamar ingururi izena galdetu eta denbora bat pasa ondoren, hamar bat minutu edo, izenak esaten zituen berriz. Beste hainbat gauza ere egin genituen, baina orain denak kontatzeak luze joko luke horrela utziko dugu.

bat hartu laurogeita bat baino txikiagoa dena. Orain eskatu erantzuna. Hiru zifrakoa baldin bada, lehen biak hartu eta gehitu hirugarrena. Baina, bikoia


$$\frac{\partial}{\partial x} \cos x$$

Kuriosidade moduan, zera esango dizuegu, telebistan askotan agertu dela. "Digan lo que digan", "¿Qué apostamos?"...

(Kolonbian) jaio zen eta berak esan zuenez matematikak beti suspenditzen zituen eta eskolan denek jotzen zioten adarra horregatik. Bere anaiek matematikako ariketak jartzen zitzaizkion eta ongi egiten

Gainera, jakin izan genuenez, errekor gehiago bati-tzeko asmoz omen dabil.


Orain guri zer egin zigun esango dizuegu: Antzuolako bat arbelera irten zen eta ehun eta piku zenbaki jarri zituen eta Jaimek. 5 minututan



ikasi

Jaimek bere liburuak saltzen zituen eta nahi zuenak erosten zituen. Orain amaitzeko bere liburu-ko adibide bat jarriko dizuegu:

Eskatu lagun bati idazteko bi zifra-ko zenbaki bat, izkutuan, noski. Gero, hamarrekin bidertu eta erantzunari bederatziren edo bederatziren multiplo



baldin bada, bien artean gehitu eta horixe izango da erantzuna. Bitxia ezta?

DBHko 1. mailako neskak

IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatu: 247262
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Estampaciones Elgetarentzat amaitu da denboraldia

Ligako txapelkun izan ondoren, kopatik kanpo geratu zen gutxiatik

Aurreko astean amaitu zen Estampaciones Elgetarentzat Eibarko saskibaloia txapelketa. Kopako finalera sailkatzeko partidak jokatu zuten pasa den zapatuan, eta gutxiatik izan bazen ere, ez zuten partida irabazterik izan. Azken bi minutuetara elgetarrak sei puntuko aldearekin iritsi arren, beste taldekoen hiruko eta biko saskiratze batek partidua erabat aldatu zuen. Azkenean 36-38 emaitzarekin galdu zuten

elgetarrek. Emaitza urria dirudien arren, kontuan izan behar da, denbora azken bost minutuetan gelditzen dela bakarrik.

Hirugarren liga

Kopa irabazterik izan ez badute ere, hortxe gelditzen da irabazi berri duten hirugarren liga txapelketa. Iaz, liga eta kopa irabazi zituzten denboraldi bikain bat eginez. Aurtengo ere, txapelketa on bat egin dute, eta nahiz eta

kopa irabazi ez, liga da benetan talde baten maila erakusten duena. Liga honetan partida bakarra galdu dute, eta ez txapelketako talde sendo baten aurka. Elgetarren denboraldiko garaipen gehienak defentsa gogor baten oinarritu dira, eta honek, txapelketan puntu gutxi jaso dituen taldea izatea ekarri du.

Ikus dezakegunez Elgetako saskibaloia une on baten aurrean dugu, talde sendo bat eratu da,

eta polita izango litzateke talde honek aurrerantzeko urteetan jarraipen bat izatea. Elgetar gazteengan saskibaloiarekiko interesa sortzea ez zen bat ere gaizki etorriko, ia beti kirol berdineran jotzen baitute inertziak. Bestalde, hor dago herriko enpresa honek taldeari eskeintzen dion babes, modu honetan bere izena eta baita Elgetaren izena inguruko herrietara zabaltzea ekarri du.

Angiozar nagusi futbito txapelketan

Zazpi partidatik sei irabazi ditu eta bakarra galdu

Futbito txapelketan ez dira gauzak asko aldatu. Urtero bezala, beti aurreko postuetan ibiltzen diren taldeek dituzte aukera gehien finalerdietarako txartela lortzeko.

Iurretako Urien taldeak aurtengo txapelketan jokatzeari uko egin dionez, finalerdietarako txartela lortzea errazagoa da. Horregatik, eta urtero nahiko erraz sailkatzen diren bi talde, Bar El Arco eta Txapela, inoiz baino maila txarragoa ematen

ari direlako, beste urte batzutan aukera gutxi izan duten talde batzuk lau aurrenekoen artean sailkatzeko aukerak dituzte. Horietako bat, Alferrak taldea hain zuzen, txapelketa bikaina burutzen ari da zazpi partidatik bost garaipen lortuz.

Finalerdietan egoteko aukeran dagoen beste talde bat H.H.H. da. Oier Villak sortutako taldeak, zazpi partidatan hiru garaipen eta berdin-

keta bat lortu ditu, eta laugarren postutik bi puntutara besterik ez dago. Dena den, ezusteko handia izango litzateke talde hau finalerdietan ikustea, beste taldeekin alderatuz maila baxuagoa baitu.

Lau lehengoan artean lekua ziur duena Angiozar da. Pasadan urteko txapelkunek, jokatutako zazpi partidatik sei irabazi dituzte eta galduz eman dioten bakarra berandu agertzearen

izan zen. Hauek finalerdietan egongo dira.

Nesketan berriz, txapelketa Aldrebesen eta Joixon Bertanen artean erabakiko dela dirudi. Aldrebesek, jokatu dituzten partida guztiak irabazi dituzte eta Joixon Beranekoen aldiiz, bost partidatik hiru. Gu Gaz Guk berriz, ez du garaipenik lortu. Dena den, oraindik gazteak dira eta izango dute denbora garaipenak lortzeko.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Zorte ezberdina 4' erdiko txapelketan

De Vegak eta Peñalverrek agur esan diote txapelketari eta Aranztetak eta Uberak berriz, aurre-ra darraite


Elgetako frontoi "zuriak" bere azken partidak ikusi zituen maiatzaren 24an. Telebistaren beharrei erantzunez hemedik aurrera "berdez" jantzita ezagutuko dugu.

Larunbat horretan Elgetako bi pilotari izan genituen kantxan. Gaueko lehenengo partida Xabier Uberak jokatu zuen garai-pen erraza lortuz. Bere aurkaria Mungiako Egia izan zen eta bost tantu besterik ez zituen egin. Ondoren, Eñautek hartu zuen Xabik utzitako lekua eta honek ere ez zuen arazo handirik izan Tolosako Alkorta garaitzeko. Azken emaitza 22 eta 2. Espero dezagun bi pilotari hauek hainbat astetan aurrera jarraitzea, azken urte hauetan ez baitugu elgetarrik goian ikusi.

"Elgetako Goñi" kalera

Beste bi elgetar kalean dira dagoeneko. Gazte mailako gure ordezkari bakarrak, Txomin de Vegak, ezin izan zuen Bergarako

Muruamendiaraz garaitu, 18 eta 11 galduz. Nahi baino lehenago kanporatua izan den beste bat David Peñalver izan da. Pelotazale batzuk "Elgetako Goñi" bezala bataiatu dute Peñalver, eta joko aldetik antz handirik egon ez arren ikuskizun aldetik badago parekotasuna. Lehenengo partidari, Eskoriatzako Eriz gairatzeke ez zuen arazo handirik izan (22-8). Hurrengo kanporaketan, Matute errioxarraren aurka aldiz, ezin izan zuen garaipena lortu. Partida oso parekatua izan zen eta ikuskizuna ikusgarria. Partidari zehar, N.B.A.ko jokalaria bailitzan, tantua lortzen zuenean bere alde zegoen ikusle goari eskuak gora eta behera mugituz animatzeko eskaerak egin zituen. Sakez bi pasa egin zituztenean aldiz, barkamena ere eskatu zien. Garaipena lortzeko irrikaren ondorioz edo, zenbait jokalditan ez zuen guztiz garbi jokatu eta zenbait ikusle jarri hori gogor



Peñalverrek agur esan dio 4' erdiko txapelketari.

kritikatu zuten. Azkenean, tantu bakarraren aldeaz, 22 eta 21, galdu zuen eta ondorioz agur esan dio txapelketari.

Batzuk ez dute Peñalverren jarrera ulertu-

ko, baina egia esan, txapelketa hasiera honetan batez ere, asko eskertzen da David moduko pilotariak ikustea, monotoniatik alde egiten laguntzen dutenak.

Askasibarrek, gihar arazoak denboraldi hasieran

Oskarrek ezin izan du aurtengo txirrindularitza denboraldia nahi bezala hasi. Iazko denboraldian izan zituen iztarreko gihar arazo batzuk, aurtengoaren hasieran areagotu zaizkio. Gihar arazo hauek, lasterketa azkar doanean mina eragiten diote eta bere erritmoa jeitsi beharra

izaten du. Bitartean, zenbait mediku azterketa egiten dihardu giharretako min hau zerk sortarazten dion jakiteko.

Saria jaso


Arazo hauek izan arren, ez dio las-

terketetara joateari utzi eta korritu duen azkenetako bat Arabako itzulia izan da. Bertan ibili da lau egunetz eta nolana. Saritua izan da Askasibar. Antolatzaileek dotoretasunaren saria eman diote, eta podium gainean ikusteko aukera izan dugu.

MAKAILOA BIZKAITAR ERARA

Sukaldaria: Sebastian Arantzabal

Ozkarbi Elkarte



NOLA PRESTATU:

Lehenik eta behin, makailo solomoak gezatu eta eskamak kendu.

Saltsa egiteko: Zartagin haundi batean olio berotu eta kipula txikituta bota. Biguntzen denean, gorritu gabe, azenarioa, porrua, gaileta zatitua eta bi koilarakada tomate gehitu. Biguntzen eduki.

Bitartean, piperrak egosten ipini, pepita barik. Egositakoan zartainera bota. Azkenik, hau guzrtia txinotik pasatu.

Makailoarekin berriz, uretan gezatzen egon ondoren, atera eta ondo lehortu. Olio berotan solomo xerrak pasatu. Ondoren, bustinezko ontzi batean azala gora begira dutela sartu eta saltsa gainetik botatzen zaie.

Su baxuan egosten eduki eta gelditu gabe eragiten, bestela itsatsi egiten da.

OSAGIAK(2 lagunentzako):

4 zati makailo solomoa
kipula gorri bat
Porru bat
Azenario bat
Gaileta bat
Bi koilarakada tomatea
8 pipar txorizero
Olio



GOMENDIOAK:

- Gaileta erabili ordez, ogia ere erabili daiteke.
- Saltsa egiterako orduan, barazkiekin batera urdai zati bat erabili daiteke. Bigundutakoan atera.


Estetika eta Masaia



MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1
Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1
Tel: 94 681 63 75 Durango



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.






Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Ez dogu uste hain zailla zanik asmau biharrekua. Goibekokale ifintzen eben berbak ixa irakurri egin zeikien. Goibekokaleko laugarren urteurrena ospatu giñuaneko pastela zala esatia zailla?

Bueno, karta bat bera be ez dogunez jaso banatu be kamiseta bat bera be ez dogu banatuko. Gurera karta bat bialtzearren kamiseta pare bat irabaziko zeunkie, baiña huelgan edo ete zagozien pentsatzera allegau gara.

Kamisetak banatzen jarraitzen dogu hala eta be. Hori kamiseta parioi bihar izan ezkerro desenfokauta ageri dana zer dan erantzun biharko dozu. Pista moduan esan, barruan edozer topau leikela idatzitta.

Asmau ostian bialdu Goibekokalera, Kultur Etxian gare.





Laster hasiko dira herriko politikeroak euren propaganda elektoralakin buzoiak eta kaliak betetzen. Batak, kriston gauza pillua egingo dittuala esango dau; bestiak, berriz, horrek gauzok ez dirala hain kristonak egin bihar.

Pozik ifintzeko modukua izango da, bi partiduok elekinuak daren bakoitzian moduan, Goibekokalen egitten dabizen ridikulua egittia lagatzen badabe.

Alkarri zelan kritikau pentsatzen pasatzen daben denboria, herrixa forma bateratu batian zelan aurrera eruan diskutitzen pasauko balebe herrixa askoz hobeto fango litzake. Baiña, gaur egunian, nun egitten dabe ba politikeroek elkarlana euren benefiziorako ez bada? Ez euren benefizio pertsonalerako, ez deigun txarto pentsau, beti euren siglen benefiziorako.

Siglak baiño

Politikia siglak baiño gehixau da

inportantiaua da herri lana aurrera eruateko bakoitzak dakazen ideak mahai gainian ifintzia, diskutitza eta danondako onena dana aukertzia. Baiña gizartian, maiorixa eta minorixen bittartez funtzionatzen dogunez, ezingo dogu honetan pentsau. Ekainak 13an be, danak irabaziko

ala bestekua izan ez gara iñor pringatzen. Hori bai, listak ikusittakuan danok kritikau egingo doguz, baiña gu alde batera geratuta.

Hala ta be, ez dot uste arazo bakarra jendian pasibidadia danik. Bi partiduak pentsau bihar lukie zegaittik kos-

duen arazua bakarrik, hau herrixan arazua da. Arazua alkatia bakarrik balitza gaitz erdi, alkatia aldatu egin bihar da, baiña baitta bi taldetakuak be. Ta hor dago partiduen lana, jendiai herrixagaittik lana egin bihar dala eta egitten dabela demostratzian.

Jendia talde batekin edo bestiakin lanian hasteko forma bakarra, siglak batzutan alde batera lagatzeko aukeria, oiñ artekuak alde batera geratu eta jende barrixai aukeria emotia eta batez be herrixa eskatzen dabilen alkate barrixai mundu politikeroi erakargarria egittia da. Jendia lantaldiak guztiz barriztuko dirala eta benetan haize barrixa sartu bihar dala ikusittakuan orduan pringauko da. Honek lortuko dau alkatian inguruan lantalde sendo bat sortzia eta Udaletxera biharrezkua dan haize freskua sartzia.

Oxel Erostarbe Tubilla

Jendia lantaldiak guztiz barriztuko dirala eta benetan haize barrixa sartu bihar dala ikusittakuan orduan pringauko da.

dabe, baiña Elgetan batzuk agindu egingo dabe eta beste batzuk aguantau.

Elekinu en aurretik listak kaleratzen hasi biharko dira gure herrixan be. Elgetakuok ez gara beste herri eta naziñuetakuen diferentia. Ideologia batekua

tatzen jakuen hainbeste jende barrixa sartzia listetan.

Baiña gauzak ez dira betirako izaten eta alkate bat gutxiu; bueno, oingo martxan auskalo! Partiduak badakixe lehentxuau edo geroxuau alkatia aldatu bihar dala, eta hau ez da parti-

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Erretratuak: Pedro Gorrotxategi

Makiña bat bazkari eta afari eginddakuak

Eau erretratuak 1968. urteko apirillan etaratakua da. Bertan darenak Asentzioko Gure Borda elkarteko soziuak ziazen.

Pedro Gorrotxategik esan doskunez, Eurak orduan makiña bat bazkari eta afari egitten ebela. Hau argazkixau halako bazkari baten ostian etaratakua ei da. Orduan denporetan be baeuan bateronbat erretratuak etaratzen zittuana, izan be, asko ei dakaz etxian. Eibartarrak be ikusi leikez erretratuan, Martintxonian berania-tzen eben eta.

Beste kontu barik hemen dakazuez izenak:

Goixan: **Leonzio López (eibartarra), Juan Arbe, Jabier Elkoro, Alberto López (aurrekuan anaia), Txomin Zuloaga (eibartarra), Julio Ugalde eta Jose Mari Elkoro.**

Behian: **Felipon Arantzeta, Patxi Zabala eta Pedro Gorrotxategi.**

Denda berria



T
textil
agirrezabal
A

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak

AIT-ITV eta autobus
geltokitik 100 metrora



Gotzon Agirrezabal


Tel/Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

asteleheneretik zapatara:

10:00-13:00

eta 16:00-20:00.



Amillaga Industrialdea, 5 · BERGARA · Renault-en ondoan



GORA MAIATZAREN LEHENA

LANGILEOK

BATERA

Elgetako

EH
Euskal Herritarrok

Maiatzak 8 zapatua Elgetako EHren aurkezpena
Liburutegian, eguerdiko 12:30etan
Denok gonbidatuta zaudete

EH
Euskal Herritarrok